

Kalea inspirazio iturri

drogeten iturri

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 167. alea 2009ko apirila

**drogetenituri-k
tirada handitu du.**

**Etxean jaso nahi duzu?
Emaila bidali
drogeten@gmail.com helbidera.**

Emakumeen sustapen zentroa

Ermuko emakumeen sustapen zentroak lau hamarkada baino gehiago daramatza lanean. Irabazi asmorik gabeko fundazio bat da eta BBK-ren laguntzaz egiten du aurrera. Emakumeentzat topaleku bat da eta euren gaitasunak garatzeko abia.



- Zein urtetan sortu zen?

Emakumeen sustapen zentroa 1970. urtea baino lehenago sortu zen eta berrogei urte baino gehiago daramatzagu martxan.

- Zenbat kide zarete?

Guztira 30 bat emakume izango gara, baina kopurua aldakorra izaten da, urtean zehar egiten ditugun prestakuntza modulu eta ekitaldi ezberdinen arabera. Prestakuntza hauetan emakume ezberdinek ematen dute izena: batzuk urte osoko prestaketa eta modulu tarako izena ematen dute eta beste batzuk, berriz, hiru hilabetetako prestaketarako.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Zentroaren helburuak dira besteak beste, emakumeen partaidetza soziala formazio ezberdinen bidez sustatzea, emakumeen gaitasunak garatzea eta kultura handiagotzea. Horretaz gain zentroak emakumeentzat topaleku izatea du helburu.

- Zein maiztasunarekin biltzen zarete?

Astero-astero biltzen gara zentroan. Eta astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 15:00etatik 17:30era izaten ditugu formazioak.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Urtean ekitaldi ugari egiten ditugu: memoria lantzeko tailerrak, literatura tailerrak, irteera kulturalak, zine zikloak (emakumea eta zinea...), egungo gaiak lantzeko tailerrak...

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Edozer gauzarako eta informazio gehiago nahi izanez gero, zentroan egunero egoten gara, astelehenetik ostiralera arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara eta bestela posta elektronikoko bidez: m_asun_ramos@yahoo.es helbidean. Baldintza bakarra emakumea izatea da eta jendea izena ematera animatzen dut.

Olatz Gil

SAN ANTONIO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOGEGIA

CERYECERIA
NCHAY

ZYTik

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa.

HELBIDEA:Erdikokale 2, 1.
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com**ERREDAKZIO TALDEA:**Estibalitz González,
Asier Ibaibarraiga,
Alazne Aiestaran,
Pello Mugarza,
Justo Azaguirre,
Olatz Gil eta Dorleta Vidal.**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Antonio Javier Hernández.

LAGUNTZAILEAK:Piedi Eizagirre,
Igone Amesti, Ane Saenz,
Patxi Lopez, Nagore Espilla
eta Higinia Solozal.**ARGAZKIAK:**Alazne Aiestaran, Olatz Gil,
Dorleta Vidal
eta Asier Ibaibarraiga.**PUBLIZITATEA:**Arantzi Perosanz
(61 0448079).**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:Aritz eta Ekaitz Muñoz
eta Jon Arano.**TIRADA:**

2.200 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Esamoldeak...

...Higinia Solozabalek batuta

"Hobe duk 'Agur' esatea, 'Joan hadi' entzun behar izatea baino"



Higinia Solozabalek batutako esamoldeen ordez datorren aletik aurrera Fede Iturriagagoitiak bildutako inguruko txorien fitxak argitaratuko ditugu lekutxo honetan. Esamoldeei betirako 'agur' baino 'gero arte' esango diegu, hurrengo baten berriro helduko diegulako.

Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO	4	
Emakumeen Sustapen Zentroa		
ELKARRIZKETA	5-7	
Garbiñe Esturo misiolaria		
MALLABIAN ZER?	8-9	
Mallabiko ermitak (2. zatia)		
ERREPORTAJEA	10-11	ELKARRIZKETA
Vertigo Rock		Xabier Amuriza
MOTZEAN?	12-13	ANTZINAKOAK
Korrika / Artarra Atlasen		Ermua eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER?	14-15	SALEROSKETAK
Antonio J. Hernández margolaria		Saldu, erosi edo agurtu
BOTEPRONTOA	16	IRITZIA
Nor da Angel Gil?		Erosketak on-line
		KALEKO INKESTA
		Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
		AGENDA
		Maiatzeko agenda

**ERMUKO
UDALA****MALLABIKO
UDALA****EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaBizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia**Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak,
Ermuko Udalak eta Mallabiko Udalak diruz
lagundutako aldizkaria**



Garbiñe Esturo, Misiolaria:

“Tonbolako andrak benetako Misiolariak dira”

Ermuko Sallabente auzoan jaio eta azken urteak Santiago de Chileko beste auzo batean eman ditu, behartsuei laguntzen. Ermuko Tonbola Solidarioak ateratako diru-etekinen zati bat bertara darama, pozarren, urregorria baino balio handiagoa duelako bertan. Elkarrizketa honek hango egunerokotasuna eta zailtasunak sakonago ezagutzeko aukera ematen digu.

- Non jaiotakoa zara?

Ermuan, Sallabenten. Ni neskatoa nintzenean auzo zoragarria zen, bertakoek itzelean estimatzen genuen elkar. Anai-arrebak bezalakoak ginen, indibidualismo-rik gabe. Haurtzaro polit hori barru-barruan geratu zitzaidan betirako.

- Nora joan zinen eskolara?

Sallabente bertara, orain elkarte bat den etxetxo horretara. Gero 18 urtera arte Durangoko frantsesetara, Nevers izeneko ikastetxera eta 21 urterekin Kongregazio berean erlijioso sartu nintzen. Besteengatik zerbait egiteko gurariak bultzatu ninduen. Gerora Madrilerabiatu nintzen eta 30 urtetik gora egin nituen, irakaskuntza tartekatzen periferiako auzoetako behar-tsuei laguntasuna ematearekin. Haren ostetik Txilera joatea eskatu zidaten eta 16 urte daramazkit bertan.

- Nolakoa izan da Txileko zure ibilbidea?

Hasieran Santiagoko periferian egon nintzen lanean, premiarik oinarritzkoenak bete barik zituzten txirioei kargu egiten; biolentzia, drogamenpekotasunak eta alkoholismoa hain sustraituta daude han! Iritsi nintzenean, zalantzan egon nintzen bertan egoterik izango ote nuen: eragin ikaragarria egin zidan euren txiritasun-



Garbiñeren lana behartsuen aldekoa da beti.

nak, egurrezko etxetxoetan bizi izaten oinarri-oinarrizkoena ere faltan. Beraien arteko elkartasuna indartzeko ekintzak egiten genituen, ezer ez zutenek zerbait izan zezaten. Esate baterako, "olla común" deiturikoa: lapiko bakarra egin denontzako, bakoitzak ahal zuena sartuz bertan eta jatordua merkeago ateratzeko asmoz. Oso esperientzi polita izan zen, mundu guztiak aurrera egiteko nahia zuen eta. Gero nekazal herrietara joan nintzen, emakumeei erakustera zutena nola hobeto aprobetxatu. Aurrera

egiteko tresnak eskaintzen dizkiegu: joste edo auto-baloratze tailerrak antolatuz, ogi-labak egin edo loreak landatzeko teknikak erakutsiz... Kooperatiba txikiak eratu genituen eurak egingdako mermeladak sal zitza-ten.

- Zerk harritu zintuen iritsi zinenean?

Belorioa, tanatorioa hemen. Beraien etxean egiteko ohitura dute. Norbait hiltzen denean, edukiz gero izara zuri bat jartzen diote, apaindu apurtxo bat eta hantxe jartzen dute hilkutxa. Edozer ikusi dezakezu holakoetan: bertan gelan oiloak, txakurrak, pare bat mozkorrillo hildakoari laguntzen eta "Juntos como hermanos" abesten, mokoz betetako umeak zerraldora hurbiltzen... Ze familiarra den heriotza han eta zen-

bat ezkututzen dugun hemen!

- Zer erakutsi dizu Txilek?

Itxaroten jakiten. Ni hemengo zurruntasunarekin nindoan, ordutegietara ohituta; apurka-apurka erakutsi didate hango kultura hori dela, beste erritmo bat dutela eta beste patxada batekin bizi direla. Ez naiz ni izango puntualtasuna zer den erakutsiko diena. Neu moldatu naiz.

- Nolakoa da Txile?

Oso aberatsa, baina aberastasuna txarto banatuta dago: batzuk itzelean dute eta beste batzuk eskasiarik gordinenean bizi dira, zer jan ez dutela ere. Baina lursailen ugazabei ez zaie komeni jende xumeak begiak zabaldu ditzan.

- Ermuko Tonbola Solidarioan zaintzen dituzten proiektuetako

**"Bertako jendeak
oparitutako maitasunak
han egoten laguntzen digu"**

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

komunitateak
aseguruak
San Pelayo
aholkularitza
fiskal eta juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY
**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

bat zuena da.

Bai eta apartekoak iruditzen zaizkit horrek androk. Benetako misiolariak zirela esan nien, eguna joan eguna etorri lanean eta gutaz arduratzen. 800? eman didate eta plata horri urte guztia iraun eragiten diot. Formazioerako erabiltzen dugu gehien bat, begiraleren bat ordaintzeko, ikastaroetarako materiala erosteko... Beste partida bat etorkinei laguntzeko edo hiesa duten gaixoak kartzeletan zaintzeko gordetzen dugu... Dirua eman, oso kasu zehatzetan ematen dugu eta beti ere zer eta nori doan jakinda; tresnak, aurrera egiteko erremintak ematen saiatzen gara.

- Kongregazioan jende eskasiarik bai?

Gaszte jendea falta zaigu.

Orain gure espiritualtasunean pertsona laikoak formatzeko ari gara, gu bizi garen bezala bizi daitezen berriek. Konprometitutako taldeak sortzen ari dira eta hortxe ikusten dugu honen guztiaren irtenbidea.

- Espiritualtasuna modan dago?

Bai, jendeak zerbait behar du. Bilatze mugimendu gero eta handiagoa ematen ari da.

- Zelan hartzen da zuen dedikazioa?

Bertako jendeak oparitutako maitasun eta kariñoa da guri bertan egoten laguntzen diguna. "¡Madresita, venga a tomar un tesito; acabo de hacer pansito y está caliente, venga!". Nire lehen urtean sarritan eza-gutzera ateratzen nintzen, nire bizikletan jarrita.

"Aurrera egiteko tresnak eskaintzen dizkiegu"

Behin bueltan nentorrela, euria zen gogor eta non entzuten dudana: "¡Madresita!" deika amonaxo bat bere "ruquita", bere txabolatxo aurrean. Te bat bertu zidan eta bazkarian soberan geratutako ogi zatiak eskaini. Semea etorri zitzaion arrautza bat jan guran, baina amak erantzun oилоek ez zutela egun horretan arrautzarik egin. Zuen apurretik eman zidan, harek ogi puntak eta ez ninduen ezagutzen, imajinatu egin zen nire estiloagatik edo bizikleta gainean ikusi-

ta. Hunkitu egiten zaitu eta pentsarazi: "Eta guk zer?"

- Eta guk zer?

Batzutan amorru apur batekin begiratzen diot eta kalte egiten dit ikustea zelan kontsumitzen dugun, zenbat ogi alperrik galtzen. Premia eta eskasia horiek ikusi eta barruan zer edo zer aldatu egiten zaizu. Han sentitzen dut egon behar naizen lekuan nagoela.

- Han zaudenetik hobera egin dute gauzek?

- Per capita errenta, baxua izaten jarraitu arren, hobetu egin da. Txiletarrak alperrak direla entzun izan dut. Batzuk bai, leku guztietan bezala, baina beste batzuk... Fruta batzen egun osoa lanean eman ostean, euren pesoak irabazi eta ikusten dituzunean adreiluak erosten egurrezko "ruquita" hobetzen joateko eta etxe duin bat izateko... ez dituzu alpertzat hartzen, ez! Hobetze gogo itzela ikusten diet nik, baina soldatak hain dira baxu eta barregarriak, ilusioa ere galdua dutela. Eta aldiz, aberatsetik pasatutako jendea dago miseria horrekin ezer jakiterik nahi ez duenik. Zurrumbilo horretatik irtetea oso zaila da bai alde bateko zein bestekoentzat. Baina guk gurean aurrera!

Estibalitz González



Adierazgarria argazki honek atzean idatzita daukana: "Los geranios están bonitos, disimulan la pobreza".

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

solozabal tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Mallabiko ermitak (2)

San Jurki ermita

Berano Txiki auzoan dago. Gotiko-errenazentista garaikoa da. Oinplano errektangeluarra dauka, manposteriaz egindako hormak eta gailurra bi aldeetara. Kanpaia, barrualdean, habe batetik zintzilik. Arku zorrotzeko atea eta porlanezko zorua ditu. Sarrerako atearen eskuinera, arkupe barruan mahai bat dago. Trumoiak jotzen ebanean mahai honen gainean ipintzen eben San Jurkiren irudia trumoiia bildurtuko eban ustean.

San Jurki eta San Markosen irudiak dagoz eliza barruan, eta baita Jesusen Bihotzaren eta Ama Birjinaren koadroak be. Santuaren eguna apirilaren 23an da berez, baina apirilaren azken domekan ospatzen da.

Andra Marla Esperantzakoa

Areition dago ermita hau. Errenazentista garaikoa da. Oinplano errektangeluarra dauka. Manposteriaz eta harlanduz eraikia dago. Gailurra bi aldeetara. Kan-



paiarentzat burdinazko kanpai-horma, burdinazko gurutze batez errematatua. Dinteldun atea.

Aurrekaldean burdinez babestutako dinteldun leihotxo dago, LIMOSNA jartzen dau bertan. Zorua adreiluzkoa eta harlauzazkoa da.

Andra Mariaren imajina dauka eta imajina bera irudikatzen daben koadroa.

Jaia maiatzaren lehen domekan ospatzen da, nahiz eta maiatzaren 1ean, domeka ez bada, jaiei hasiera emon.

Osmako San Migel (San Migel Txiki)

Osmo auzoan kokatua dago. Barroko garaiko da. Oinplano errektangeluarra du, harlanduz eta manposteriaz egina. Hiru isuriko teilatua

dauka. Kanpai-hormarik bako kanpaia, habe batetik zintzilik, arkupe batean. Lurrean harlauzez estalia. Bertan San Migelen imajina dago. Nahiz eta bertako eguna maiatzaren 8a izan, San Migel Arkaingerua agertu zenekoa, maiatzaren bigarren domekan ospatzen da.

Justo Azagirre
eta Pello Mugarza

ARTARRAI
OPARI DENDA



Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19
ERMUA

KRABI
Ilepaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN



Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

943172665 ERMUA

BAGROS Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*

HIRUGARREN ADINEKOENTZAT HITZALDIAK ETA EKINTZAK

Apirilaren 29tik aurrera, eguaztenetan, arratsaldeko 4etatik 5etara zenbait hitzaldi egongo dira Jubilatuen Etxean. Hitzaldi honeek Jubilatuen elkarteak eta Ongizate Sailak elkarlanean antolatu ditue.

Apirilaren 29a. Adimen emozionalaren gaineko hitzaldia emongo dau Elena Iraolagoitia psikologoak.

Maiatzaren 6a. Eguneroko gatazkak konpontzeko irtenbideak eskainiko ditu Ana Oiarzun andreak.

Maiatzaren 13a. Zoriontasuna gaia landuko dau Elena Iraolagoitia psikologoak.

Maiatzaren 20a. Estresa, zer egin bizitza osasuntsuagoa izateko. Gaiari erantzuna emateaz arduratuko da Sonia Ulazia padagogoa.

Hitzaldi honeen gaineko informazioa nahi dabenak Loredi Salegi, Mallabiko Ongizate arduradunarengana jo dagiala, telefono honetara deituz: 943170327.

Tute eta briska txapelketa

Maiatzaren 22an TUTE eta BRISKA txapelketa egongo da bazkideentzat. Parte hartu nahi dabenak maiatzaren 17a baino lehen izena emon behar dabe Jubilatuen tabernan. Izena emotea dohain izango da. Lehenengo saria 80 eurokoa izango da eta bigarrena 60 eurokoa. Txapelketa amaitu ostean txokolatada egingo da bazkide guztientzat.

MALLABIKO II FRONTENIS TXAPELKETA

Mallabiko II Frontenis txapelketa ailegatu da azken fase erabakiorrera. Hilabetez jokatzeko egon ondoren, 34 taldetik 8 geratzen dira eta hauek izango dira azken laurdenak jokatuko dituztenak. Apirilaren 21ean hasita, egunero, arratsaldeko 6:30etatik aurrera:

Iñigo Pradera- Koldo Orobio

Gaizka Ogiza-Gorka Arellano

Jokin Martinez-Aner Gomez

Gorka Bollar- Mikel Solozabal-Asier Fernandez bikoteko irabazlearen aurka.

MALLABIKO XIII. FUTBITO TXAPELKETA

Maiatzaren 23an hasiko da Mallabiko XIII. Futbito txapelketa eta dagoeneko zabalik dago izena emoteko epea. Argibiderik nahi dabenak telefono honetara deitu: 669028718.

AREITIOKO JAIK

Apirilaren 30ean hasiko dira Areitioko jaiak. Aurten be egitarau dotorea prestatu dabe Areittioarrek. Arratsaldeko 8etan txopoa jasoko da, kanpaia jo eta txapliguak botako dira jaiari hasiera emoteko.

10etan bertso afaria Beñat Ugartetxea eta Eneko Abasolo 'Abarkas'ekin.

Maiatzaren 1ean, 11:30ean meza, Mallabiko trikitilariak eta herri-kirolak.

Aizkoran, Bihurri-Zelai II eta Mendieta-Aitxugane izango dira.

14:00etan auzoko erretiratuentzako bazkaria egingo da Goizeder Jatetxean.

17:00etan umeentzako jokua.

18:00etan asto probak: Artabeitti (Bolibar), Bittorio Zelaia (Eibar) eta Goizeder Jatetxea (Mallabia).

Maiatzaren 23an, 11:30etan meza eta ondoren kontzertua Igone Amesti eta Mikel Nuñezen eskutik. Ondoren, Herri kirol saioa eskainiko da. Aizkoran Eñaut (Onandi)- Goñi (Nafarroa) eta Bixente (Areittixo)- Flores (Nafarroa) arituko dira. Harri-jasotzen

Urdax (Abadiño) izango da. Arratsaldeko 18:00etan asto probak izango dira Maiora Elkartea (Maume), Erleaga (Mendata) eta Urkiagaren (Eibar) eskutik.

Jaiari amaiera emoteko bildotsa zozketatuko da.

clinica dental
San Pelayo
hortz klinika

Olaz GARCIA ORRERO

San Pelayo 5, 1º

943 17 04 04

MUGA

KALORIK

San Pelayo 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

AKADEMIA

ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMEN-

Goienkalea z/g
Telefonoa (943) 17 90 38

IZOTZ
KONTELATUAK

Ermuko Merkatua,
54 eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkatua
943 77 05 98

ELUR
ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1

943 17 60 52

URRETA burdindenda

- ✗ Etxea
- ✗ Tresneria
- ✗ Brikolaita
- ✗ Rielak
- ✗ Giltzak
- ✗ Zerrailgintza
- ✗ Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Vertigo Rock, maiatzak 23

Vertigo Rock jaialdiak 3 urte beteko ditu aurten eta talde indartsuak jarriko ditu eszenatokian: Hamlet eta Censurados (2. aldiz eta eurek eskatuta), eta horiekin batera Damu Dot mallabitarrak eta Eskarmiento ermuarrak.

Iazko aurrekontu berdina duen arren, jaialdiak berritasunak dakartza: “Aurten plazako kontzertuez gain, herriko kale ezberdinetan joko dute No Konformek (Madril), Vuelkok (Bilbo) eta Lord Witchek (Bergara) arratsaldean, 17:00etatik 20:00ak arte”. Talde horiek Komentukua eta Zubiaurren joko dute “tabernek ere laguntzen digutelako eta kontzertua eurei hurbiltzeko modu bat delako”.

Horretaz gain, iaz bezala, graffiti erakusketa eta argazki lehiaketa egingo dira egunean zehar, antolatzaileen nahia, egun osoko jaialdia egitea delako. “Katxeak gorantz doaz eta guztiak gehiago balio du; eskerrak iaz dirua aterra genuela barran, horrekin osatu ahal izan dugulako aurtengo aurrekontua. Talde batzuek gainera, eskuzabal jokatu, kobratu gabe etorriko dira eta beste batzuek euren katxeak erdira bajatu dituzte”.

Aurten lagun gutxiago


daude antolaketa lanetan, 18 lagun, “baina gaude-nok, benetan inplikaturik gaude eta hori eskertzeko da diote. Etorri diren talde denek ondo hitz egingen dute jaialdiari buruz, baina horrek lana eskatzen du: taldeekin pertsona bat egon behar da beti, entseatu, afaldu eta jotzeko ordutegiak errespetatu behar dira... Guk horrelako gauzei arreta handia jartzen diegu, guk geuk ere taldeetan jotzen dugulako, edo talderen batekin lotura dugulako, eta bada-kigu taldeek zeintzuk behar dituzten”.

Iazko balorazioa

“Arratsaldeko 19:00etan jaialdia bertan behera gertatzeko zorian egon zen euria zela eta. Baina bat-batean eguzkia agertu zen eta dena martxan jarri zen berriro. Gainera, bost urte eta gero Storbaisen itzulerari bizi genuen Vertigo Rocken eta jende pilo etorri zen hori ikustera”.

Lehenengo urtearekin alderatuta, eboluzio nabarmena egon zen antolatzaile-

Anestesia 2008ko Vertigo Rocken.



entzat: “2007an, 150 edo 200 pertsona inguru egon zen kontzertu bakoitzean eta iaz, Storbais eta Anestesiarekin batez ere, 1.000 pertsona inguru bilduko ziren plazan. Aurten 2.000 pertsona egotea da gure erronka, nahiz eta 1.000kin ere pozik egongo ginatekeen”.

Euren asmoa “Ermua ezagutzera ematea da, gaur egun ikusten den modutik desberdin eta, batez ere, herriko taldeei aukera ematea. Arrazoi hori dela eta, Ermuko talde bik beti jotzen dute Vertigo Rocken, bestela inoiz ez

luketeelako izango hainbeste jenderen aurrean eta hain talde ezagunekin jotzeko aukerarik. Promozionatzeko modua ere bada, egungo egoera ikusita, kontzertuak direlako taldeen diru-sarrerara bakar, diskoa saltzea ia ezinezkoa delako”.

Taldeen promozioaz gain, musika zirkuituetan Vertigo Rock ezaguna izatea nahi dute eta oso bide onetik doala diote antolatzaileek: “Azken urtean email-erasoa izan dugu eta 20 edo 30 talderen maketak ditugu etxean”.

Dorleta Vidal

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- Tarta bereziak

- Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Infreñu Taberna
Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

Hamlet

- 'La puta y el diablo' zuen azken disko da. Zelan definituko zenukete?

Diskoa indartsua eta agresiboa da, garapen eta aldaketa askorekin. Orain arte, gehien landu dugun diskoa dela esango genuke.

- 20 urte baino gehiago daramatazue jotzen (1987tik). Nola laburbilduko zenukete eta zer azpimarratu?

Gure helburu guztiak betetzen joan gara. Estudioan grabatutako 9 disko izatea ez da erraza, eta hori gure lanari esker lortu dugu: kontzertuak ematen, konformistak ez izaten, musikan ikertzen... Ahaztu gabe gure jarraitzaileek emandako laguntza. 20 urtetan gauza asko egin daitezke eta hain konplikatu den mundu honetan, alde positiboak alde negatiboek gailentzen zaizkie.

- Zelan lortu duzue hainbeste urtetan zaudeten horretan mantentzea?

Egiten dugunagatik benetakio pasioa sentituz, ez dago besterik. Jotzen, asko entseatzen, egiten ditugun gauza guztiak hobetzen edo hobetzen ahalegintzen eta gure buruetan sinisten.

- Zein da taldearen etorkizuna epe ertainera?

Zuzenean jo 'La puta y el diablo' aurkezteko.

- Ermua eta bere inguruak ezagutzen dituzue?

Bai, inguru horietan askotan jo dugu, asko gustatzen zaigu hara joatea.

- Vertigo Rock ezaguna zenuzat?

Musika jaialdi honetan jotzen dugun lehen aldia da, eta bertako taldeek eta musikariek antolatzen dutela dakigu.

- Musika jaialdi hau Ermuko musikari gazteek antolatzen dute eta honi esker, talde handiek jotzeko aukera dute, zue-



kin esaterako. Zer derituzue ekimen honi?

Ekimena benetan ona da eta pozten gara gurekin pentsatu dutelako. Guri esker eta gu baino ezagunagoak diren taldeei esker, talde berriak ezagutzera emateko balio badu, hobeto guztiontzat.

- Metal, rock eta heavy taldeek esaterako aukera berdinak dituzte orain eta zuek gazteak zinetenean? Emaiezue aholkua.

Lehen oso zaila zen zuzenean jotzea, ezaguna izatea... eta orain ere bai. Garai ezberdinak dira, jotzeko erraztasun gehiago dago, musikarien elkarteak, Internet... Baina kasu batzuetan, arrakasta lortzeko prisa gehiegi dago eta diskografikoek lehen ez zuten krisi itzela dute orain. Gure aholkua: pazientzia izan, musikari moduan hobetu, disfrutatu eta ondo pasatu, umilak izan eta oinak lurrean eduki.

Vertigo Rockeko antolatzaileak

Lehen oso zaila zen zuzenean jotzea, ezaguna izatea... eta orain ere bai. Garai ezberdinak dira, jotzeko erraztasun gehiago dago, musikarien elkarteak, Internet... Baina kasu batzuetan, arrakasta lortzeko prisa gehiegi dago eta diskografikoek lehen ez zuten krisi itzela dute orain. Gure aholkua: pazientzia izan, musikari moduan hobetu, disfrutatu eta ondo pasatu, umilak izan eta oinak lurrean eduki.

Censurados

- Duela hilabete batzuk 2.diskoa kaleratu zenuten, 'Suerte'. Nolako harrera izan du?

Egia esanda, uste baino hobea. 1. diskoarekin promozio handia izan genuela bagenekien eta kontzertuetara datorren jendea topatzea oso zaila dela. 'Suerte'k ezin hobeto funtzionatu du. 1. diskoak izan zuena baino promozio gutxiagorekin askoz ere jende gehiagora heldu gara eta oso pozik gaude emaitzarekin.

- 'El tiempo todolocura' zuen lehen diskoa izan zen. Bertan, Barrikadako 'El drogas'ek eta Reincidenteseko Fernandok parte hartu zuten. Kolaborazio berezirik dago 2. lan honetan?

Bai. Lehengoan tipo mundial horiekin egin genuen lan eta 2. ean Mareako Kutxi Madrileren bajatu zen eta 'Sin tu

piel' moldatu zigun; plazer itzela benetan!

- Taldekide berria duzuela entzun dugu. Zelan moldatu da? Aldaketa gogorra izan da?

Aitorrek taldea lagatzea erabaki zuen orain dela hilabete batzuk, gai pertsonalengatik, eta Ebony Ark-eko Javi Jimenes etorri zen, bere taldea desegin zelako. Oso ona da! Zuzenean ikustea besterik ez dago. Pozpuzik gaude berarekin.

- Zein da taldearen etorkizuna epe ertainera?

Udan, gure 3. diskoa izango dena prestatuko dugu eta gabonetan kaleratuta egotea espero dugu. Hori da gure helbururik garrantzitsuenak. Bitartean, zuzenean etengabe jo!

- Vertigo Rocken parte hartuko duzuen 2. aldia da. Jaialdiak 3 edizio izan ditu eta errepikatu duen talde bakarra zarete. 2007ko edizioarekin zapore onare-

kin geratu zineten?

Oso ona eta ez da inor lausengatzearen, baina antolatzaileek eta InsoHmniOko taldekideek oso gutxi bezala tratatu gintuzten. Asko estimatzen ditugu eta lagun handiak egin gara. Urte gehiagotan errepikatzea espero dugu. Ermukoaren ostean kontzertuetan egin dugu topo eurekin.

- Zer iritzi duzue Vertigo Rock bezalako ekimenei buruz?

Zure herriko udaletxeak edo dena delakoak herriko lagunak euren musika zuzenean adierazteko bitartekariak ipintzea baino hoberik ez dago! Talde on

asko dago gaur egun, baina zirkuitua oso itxia da. Horrelako gauzak luxua dira; Madrilen hau ez da egiten!

Vertigo Rockeko antolatzaileak



**ERMUKO
PILOTAZALEAK,
KAMISETAH SALGAI**

Lau kolore ezberdinetan daude: urdina, berdea, gorria eta beltza. Nagusienak 12 eurotan eta txikienak 10 eurotan salduko dira. Nagusien kamisetek lepoan eta besoan marra zuria dute. Sorgin tabernan, Ermuko Aritzmendi pilotalekuan edo 652715285 telefonora deituz lor daitezke.

**LA SALLEREN
BAZKARI HERRIKOIA**

Eibarko La Sallek 50. urteurrenaren ospakizunen barne, bazkari herrikoia egingo du maiatzaren 30ean. Bertan parte hartzeko prezioa: 30 euro nagusiek eta 14 euro ikasleek. Interesatuak 943 121698 edo 943 202133 telefonoetara dei dezakete maiatzaren 8a baino lehen.

**ERMUKO BIZTANLE-
DENTSITATEA**

Eusko Jaurlaritzako Udal Informazio Sistemak, Udalmapek, kaleratutako datuen arabera, Ermuko biztanle-dentsitatea Euskadikoa baino 9 bider handiagoa da: Euskal Herrian 304,31 biztanle dago kilometro karratuko eta Ermuan 2.625,32. Egun 16.400 bizilagun inguru ditu herriak eta bere azalera 6,49km²koa da.

Korrika arrakastatsua

AEK Kaltxango Euskaltegiak Korrikaren balorazioa egin du: "Apirilaren 4a, larunbata, egun ezin aproposagoa Korrika 16ri harrera beroa egiteko. Lasterketa bera benetan arrakastatsua izan zen, jende andana bide eta kale izkinetan Korrika noiz pasatuko zain, hunkigarria. Larunbat gauean heldu bazitzaigun ere, egun osoko festa izan zen bai Mallabian bai Ermuan. Era berean, ezin ahantz ditzakegu bezperan Mallabian eta Ermuan izandako Korrika Txikiak. Guztira 870 bat umek hartu zuten parte. Xilipurdi haur berbenak eta umek egindako dantzek alaitu zuten giroa. Betiko lez, Ermuko alargun taldeak prestatu-riko txokolatea dastatzeko aukera izan zuten haur, gazte zein nagusiok. Mallabiko haurrek ere primeran pasatu zuten tailerrak egiten, besteak beste. Korrika apirilaren 4an pasatu bazen ere, ordura arte hainbat kultur ekitaldi izan genituen mallabitar eta ermuarren gozamenerako, bi herrietako udalei eta Korrika batzordeetako partaideen laguntzari esker. Korrika arrakastatsua izateko ezinbestekoa izan zaigu norbanako, Mallabia zein Ermuko Udal, ikastetxe, dendari, tabernari eta hainbat elkarteren laguntza. Beraz, jaso ezazue Korrika 16ren izenean AEKideon eskerrik beroena. Eskerrik asko euskaltzale guztioi! Ongi etorri euskaltzale izango zaretenoi!".

**Ermuko Gazte Asanblada abian da**

Ermuko gazte talde bat Gazte Asanblada sortzeko lehenengo pausak ematen ari da, euren irrikak asetu eta garatzeko beharrak bultzatzeko helburuarekin: "Lokaletan eta tabernetan sartuta egoten gara egunero, gure aisialdia kontsumora bideratzen dugu eta gainera koadrilen arteko elkar ezagutza gero eta murriztagoa da", diote. Asanblada horrek herriko gazteei batzeko aukera emango lieke eta gazteek, gazteentzako proposatutako ekintza, kontzertu eta hitzaldiak aurrera eramateko aukera emango lieke besteak beste. Euren arabera, bidea ez da erreza izango, "baina saiatzeak merezi duela uste dugu, merezi duela gaur egun Ermuan dugun eskaintzatik haratago, antolatzeke beste modu bat aurkitzea".



**OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA**

Marfil

FISIOTERAPIA

943 17 28 09
Goienkale, 12 - behea



KIROL MEDIKUNTZA

Indartu

**ERA GUZTIETAKO MUTUA
ETA ASEGURUEKIN
KONTZERTATUA**

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOSIMENDU MEDIKOAK
- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOIA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Borbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Fax: 943 17 21 12 • e-mail: indartu@euskalnet.net

Artarra mendi taldekoak Atlasen



'Artarra-Toubkal 2009'ren izenpean, espedizioa egin dute Ermuko mendi talde honetako 18 lagunek Aste Santua aprobetxatuz. Atlaseko gailurrik altuena zapaltzea lortu dute mendizale guztiek (Toubkal, 4.100 metro), eta Ras eta Timesguida ere igo dituzte. Elur asko egon da eta pioletak eta krampoiak erabili behar izan dituzte, "baina mendi hau ez da bereziki gogorra", antolatzaileren arabera. Mandoez lagunduta eginda-ko igoeren ostean eta ia 40km.ko trekkingnak

egin ondoren, Marrakech eta Essaouira hirietan gozatzeko aukera izan du taldeak. Artarrairen blogan (<http://artarra.blogspot.com>) honakoa irakurri daiteke: "Berriz ere mugak gaindituz, Artarraik oraingoan Afrika aldera egin du. Atlas mendikateko gailurrik handienak zapalduz eta bereberen abegikortasunaz gozatzuz txundituta datoz mendizaleak. "In sha allah" datorren urtean berriz itzuliko gara".

Ume sahararrak udan ekartzeko kanpaina martxan

Saharar herriari laguntzeko plataformak eta Ermuko Udalak Saharako umeak etxean hartzeko programarekin bat egin nahi dituzten familiei dei egiten die. Honi esker, lurralde hartako ume bat Ermuko familia batekin pasatuko luke uztaile eta abuztua. Betebehar bakarria etxekoa bailitzan tratatzeko eta zaintzeko konpromisoa adieraztea da. Izena emateko edo argibide gehiago jasotzeko deitu 943 17 91 46 telefonora (Tere) edo 699 11 19 64 telefonora (Julio), maiatzaren 8a baino lehen. Programa honek bi helburu nagusi ditu. Batetik, gaztetxoak udan basamortuan izaten diren baldintza gogorak jasan behar ez izatea (tenperatura 50 gradura ailegatzeko baita). Bestetik, guretzat ohikoak izan daitezkeen eta haiek liburuetan besterik ikusi ez dituzten gauza ugari zuzenean ezagutu ditzatela, kasurako ura, errekek, trenak eta abar.

Berbetan eta Liburu eta disko azoka maiatzean

Euskal Biursak hainbat ekitaldi antolatu ditu maiatzerako, horien artean XVII. Liburu eta Disko Azoka (Udalarekin batera) eta Berbetan Jardunaldiak (Kaltxango AEK euskaltegia, Udal euskaltegia, Anaitasuna ikastola eta Eskolabari eskolarekin batera). Liburu eta Disko azoka maiatzaren 14tik 17ra egongo da Kardinal Orbe plazan goiz eta arratsaldean. Honen inguruan hainbat ekitaldi kultural antolatu dira: Txabi Arnalen 'Elefante maitemenidua' lanaren aurkezpena (maiatzak 14), Jon Maiarekin 'Riomundo' liburuaren solasaldia (14an), Ezekiel Etxebarria sariaren banaketa (14an), Patxi Zubizarreta 'Hamar mezu eta dei bat' literatur emanaldi musikatu (14an), Umeentzako tailerrak (16an), 'Ino, ino, ino... badator Bonbardino' haurrentzako antzerkia (16an), Antzerki-bertso saioa (17an), Maite Franko ipuin kontalaria (maiatzaren 18tik 21era) eta Yolanda Arrietarekin solasaldia (28an). Berbetan Jardunaldietan, berriz, honakoek parte hartuko dute: Txatxilipurdi Aisialdi Elkarte (maiatzak 5), Katixa Agirre (12an) eta Juan Carlos Etxegoien 'Xamar' (19an).

'LA CANTANTE CALVA' ANTZEZPENA

Ermuko Sutegi antzerki taldeak, Eugen Ioneskuren 'La Cantante Calva' taularatuko du Eibarko Coliseoan maiatzaren 8an. Iazko ekainean estreinatua zen lan hau Ermua Zinemaren Bertan Juan Carlos Colina obraren zuzendaria, David Valdeiras, Natalia Cabanas, Markos Gimeno eta Piedi Kortazarrek hartzen dute parte, besteak beste.

ETA ZUK, NOLA DIOZU?

Udal Liburutegia Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak argitaraturako hiztegia banatzen ari da herriko etorkinen artean. Hiztegi horrek 54 orrialde ditu, 'Eta zuk, nola diozu? / ¿Y tú cómo lo dices?' da bere izenburua eta bertan, ohiko terminoak 9 hizkuntza desberdinetan agertzen dira: euskaraz, gaztelera, errumaniarraz, errusieraz, arabiarrez, txinatarrez, ingelesez, portugesez eta frantsesez.

ERMUKO 8 DENDA UME ZIURTAGIRIA LORTU DUTE

Solozabal Estankoa, Itze Optika, Enter Informática, Idoia, Itsaskolor, Sukei, Horacio Decoración eta Margel dendek AENOREN UNE 175001 ziurtagiria jaso dute hilabete honetan. Horrek, salmentan bikaintasuna bermatzeaz gain, bezeroari emandako zerbitzu osagarriak ere bermatzen ditu (bezeroarekiko gertutasuna, produktuen kalitatea eta abar).

QUETZAL
gazte denda
Baietz topatu
gustuko
zeozer?
Goienkale 9
943 17 00 65

Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42


URDAITEGIA - CHARCUTERIA
MAYTE
Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA


CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta 3 L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

And the Oscar goes to... The Library of Ermua

Martxoaren 26an, hamar urte bete ziren Ermuko Liburutegia Teresa Murga eraikinean jarri zela eta bertako arduradunek erabiltzaileekin batera ospatu zuten egun hori. Udaleko zinegotzi eta langileez gain, talde ugarietako ordezkariak egon ziren gonbidatuak iluntzeko ekitaldi hartara. "Zer suposatu du zuentzat Liburutegiak?" eta "Datozen urteetarako, zer eskatuko zenioke?" galdera bikoitzari erantzuten kultur, hezkuntza eta kirol arloko hainbat talde jarri zituzten martxan, taldearen arabera ekarpen desberdinak eginez. Denek baina komunean mezu beretsua: liburuzainen kudeaketa txalagarria eta zerbitzuaren herritarrekiko hurbiltasuna. Guztiagatik, herriko antzerki taldeek opari berezi bat izan zuten kudeatzaileentzat: urrezko OSCAR estatutilla ematea LIBURUTEGIRIK ONENA arloan. Hollywoodekoaren antzera, ekitaldian txalo eta goraipamenekin batera, izan zen tartetxoa musika, gastronomia eta posiarendako ere. Honen adibide Olatz Masie eta Iñigo Aranguren gazteek Liburutegia omentzeko sortutako ondoko lau ahapaldiok, 'Mate'ko azterketan zorioneko 'hamarra' lortzen lagundu dien Teresa Murga Liburutegiari eskainiak:



1. Ermuko hiri erdian dago lurrean konkorra, antzinatean zegoen haitz ilun eta gogorra. Ikustean jakintza zegoela lehorra, orduan eraiki zuten kulturaren gotorra.
2. Horrela jaio zen Ermuan Liburutegi ederra, argiak betetzen du erdia, eskuina eta ezkerria. Hor ez duzu aurkituko ikasgiro okerra, bertan kokatzen baita isiltasunaren bazterra.
3. "Azterketa daukat, ezin dut ikasi, Lengua eta Mate ditut nahasi!" Liburutegira joan eta berriro hasi, Teresa Murgari esker 'hamarra' irabazi.
4. Ikasi eta ikasi amaitzen dut gaia, laguna dakusat alboko mahaian. Berak galdetzen dit: "Nola dago anai?" Txutxumutxuka dago liburutegian giro alai.



Hara bertaratutakoen esanetatik islatu daitekeena da, nota jartzen hasita, 10 hori merezimendu osoz irabazia duela Liburutegiak. Eta ez zegoen berba eder eta lausengariak esateko propio erositako aktorerik!

Estibalitz González

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGAÑA
ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

ALBOKA

**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpet
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Antonio Javier Hernández, 'Cuco', margolaria: "Asko kostatuko litzaidake koadroa saltzea"

Autobusa gidatzen duen bi-tartean, milaka irudi pasatzen dira bere begietatik. Horietako batzuei argazkia atera eta bere 'plumillekin' margotu ditu Antonio Javier Hernandezek. Bere lanak Lobianon daude ikusgai maiztaren 3ra arte.

- Formaziorik baduzu margotzeko?

Ez, txikitatik gustatu izan zait margotzea, baina nire kabuz ikasi dut dakidan guztia. Oso esku ona dugu familian, amak eta arrebak ere oso ondo margotzen dute. Arrebak Lucas Alberdi margolari eibartarrarekin ikasi zuen margotzen, baina nik ez.

- Zein teknika erabiltzen duzu?

Arkatza ('plumilla') erabiltzen dut eta marrak egiten ditut alde batera eta bestera irudiak sortzeko. Nire ustez edozeinek egin lezake nik egiten dudana. Nire arrebak ikatz-marrak egiten irakatsi zidan, baina oinarrikoena ikasi nuen eta koloreekin ere, ez naiz baxterre ondo moldatzen.

- Zein pausu jarraitzen duzu koadroak egiteko?

Hasieran kopia egiten nuen. Etxean Darocaren bi edo 3 koadro ditut eta ez nekienez zelaz egiten zituen, horiek kopiatzen hasi nintzen. Orain, berriz, argazkiak ateratzen ditut telefono mugikorarekin, inprimatu egiten dut eta hori oinarri hartu-

ta marrazten hasten naiz.

- Buruan zerbait duzu orain?

Autobusean noanean motibo asko ikusten ditut. Margolarientzat, motiboak irudiak dira, lauki batean sartuta, koadroak izango balira moduan. Orain bi irudi egiteko gogo ikaragarria dut.

- Zenbat denbora behar duzu koadro bat egiteko?

Denbora librean margotzen dut, astean pare bat egunetan, gaueko bederatzietatik aurrera edo; beraz agian 3 aste ematen ditut horretan.

- Eta nola sortu zen erakusketa hau egiteko aukera?

Ermuko pertsona bati koadro bat egin nion eta izugarri gustatu zitzaion. Erakusketa egin behar nuela esan zidan eta konbentzitu ninduen. Hori duela urtebete izan zen eta aretoa bete behar nuenez, az-

keneko urtean koadroak margotzeari ekin diot indarrez. Beraz, erakusketan dauden marrazki guztiak (4 kenduta) 2008 edo 2009 urtekoak dira.

- Mugartea taldekoa zara?

Bai, 4 edo 5 urte daramat Mugartean, nahaspilatzen ibiltzea gustatzen zaidalako. Baina egia esanda, Mugartea Lobianora mugitu denetik ez naiz asko joaten, ordutegia ez datorkidalako ondo.

- Saririk irabazi duzu?

Bai, norbaiti koadroa ematen diozunean, honen poza aurpegia saria da. Eta pertsona hori senidea edo laguna bada, askoz gehiago. Kartel lehiaketetan ere parte hartu izan dut (Santixauetan, Emakumearen egunerako...), baina ordenagailu bidezko diseinurekin ezin da lehiatu. Gainera horrelako lehiaketak ordenagailu bidezko diseinuari zu-

zenduta daude. Orduan, aurkeztuari laga nion.


- Zure koadroak salgai daude?

Ba ez dakit salduko nituzkeen edo ez. Ni ez naiz artista, koadroak egiten ditut niri gustatzen zaidalako. Zuri saltzen badizut, ez da nirea. Seme-alaba bat saltzea bezalakoa litzateke (gehiegizko zerbait esateko). Hala ere, gauza bakoitzak bere prezioa du. Zuk koadroa enkargatzen badidazu, berriz, nahiz eta beste koadro baten kopia izan, niri ez zait inporta, berea delako.

- Zure seme-alabek ere margotzen dute?

Gazteak dira oraindik, baina batzuetan marrazkiak egiten erakutsi diet eta erraz hartu dute. Ume bati irakastea munduko gauzarik errazena da.


Dorleta Vidal





LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

San Pelalo 8C, behea
48260 Ernuia
© 943 17 47 44



"Adituak gara ondo elikatzen irakasten"

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatu

Komentukua 1, behea
943 17 63 72

A N G E L G I L

-Burgosen jaioa zara.

Hala da. Hala ere, urtebeterekin Ermuan nintzen.

-Burgos eta Ermua, biekin duzu lotura...

Burgosen ere nire eskulturak daude ikusgai. Han ere jende askok ezagutzen nau.

-Nola hurbildu zinen arte mundura?

Txikitatik izan nuen marrazketarako grina eta asko praktikatzeko aukera izan nuen.

-Nor izan da zure maisua?

Lukas Alberdi. Ez ninduen hasieran bere eskolan onartu gazteegia nintzelako, baina azkenean egin zidan tartetxoa.

- Artista bat, artista da jaiotzatik?

Dohai bereziak behar dira txiki-txikitatik; halere gogoia eta ikasteko grina ezinbestekoak dira.

- Pertsona bati begiratzean, zeri erreparatzen diozu?

Begiei eta ahoari, bi horietan islatzen da gure poza eta pena.

- Perfekzioa. Ametsa ala egia?

Miguel Angelek zioen bezala, perfekzioak soilik artisten buruan du lekua. Handik kanpo inperfekzioa da dena.

- Eguneko zure momentua...


Goizaldean, irratia eta putrotxo bat lagun, nire taileurrean lanean ari naizen uea.

- Kolore bat?

Urdina.

- Defektua...

Despistatu samarra naizela.

- Egunkaririk irakurtzen duzu...

Burgosen jaioa duela 47 urte. Seme eta alaba baten aita. Irakaslea eta artista. Hainbat lan kaleratu ditu zeramika zein harriz. Ezagunen artean, Don Teodorori egindako estatua. Egunotan, Espainia eta nazioarte mailako artisau profesionalen sariketa batean, 1. saria irabazi berri du.

Euskal Herrian bizio bat dela uste dut. Egunero irakurtzen dut, atzekaldeko orritik hasita.

- Euskal Herriko txoko bat?

Lekeitio. Sarri joaten naiz autoa hartu eta bakardadean pasiatzera.

- Zer da denbora zuretzat?

Bere osotasunean aprobe-txa ez litekeen zerbait.

- Nahi baina egin gabe duzun gauza hori...

Material berriekin lana egitea.

- Zure bizitzako egun bat?

Seme alaben jaiotzaz gain, tamainu haundiko lehen eskultura egiteko eskaera jaso nuen eguna.

- Don Teodororen eskulturaren albotik pasatzen zarenean...

Oso berezia izan da Don Teodororen omenezko eskultura egin izana. Anekdota gisa, aipatuko nuke badela rmuarren bat egunero gozokiak jartzen dizkiona eskue-tan berak zuen usadioa mantendu asmotan edo.

- Negartia zara?

Ez baina pertsona sentiberak bai. Onartu beharra daukat noizbait lanen bat saldu ostean pena handia eman izan didala.

- Musika...

Isilunea gustoko dut, baina musika ere beharrezkoa dela uste dut. Kantautoreak entzutea dut gustoko.

- Bidaia bat...

Hegazkina ez zait gustutzen, baina saiatzen naiz leku berriak ezagutzen. Ez naiz leku berera bi aldiz joaten den horietakoa.

- Hondartza ala mendia?

Mendia. Txikitan aitarekin sarritan joaten nintzen. Hondartza ez dut gustuko, itsasoa osterak bai.

- Bitxikeri bat?

Euria asko gustatzen zaidala.

- Interneta?

Aurkikuntza berezia. Gure belaunaldiko jendeantzeko urruti samar dagoena, baina berari esker informazio asko jasotzen dut.

- Beti ikasten beraz...

Hala da gurea, gaitz kronikoa dela diote. Zenbat eta gehiago ikasi orduan eta nabariagoa da zenbat dugun ikasteko!

- Webgunea ere baduzu...

Bertan daude nire lanik esanguratsuenak (www.angelgilceramicaybronze.com).

- Eskulanetan izena eman nahi duen horri...

Lasaitzeko eta deskonektatzeko aukera eskainiko dio. Izan ditut noizbait 24 orduz ikasgelan egongo liratekeenak ere.

Asier Ibaibarriaga



**SANATANA DHARMA
YOGA ELKARTEA**

San Roke, 24-behea
Informazioa: 943 74 85 93 edo
685 72 21 31 (Idoia)




Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKI LORE

Xabier Amuriza: “Kanturako ohitura berreskuratu beharra dago”

Euskal Birusak antolatuta, Kantu Tailerra abian da Ermuan. apirilaren 27an hasi eta maiatzaren 11a bitartean, Xabier Amuriza bertsolari eta kantu egile haundia izango da, 3 astelehentetan, Lobiano Jauregian. Makina bat talde eta bakarlariren abestik daramate bere izena, eta haietako batzuk abestu eta aztertuko dira tailer honetan. Berrizko Andikoa auzoan duen base-rrian egon gara berarekin.

- Ermura zatoz laster.


Euskal Biruseko kideek deitu zidaten kantu tailer bat antolatua zutela eta ni ere eraman nahi nindutela. Materiala prestatzen ibili naiz eta oso gustura joango naiz zuongana.

- Zer asmo duzu tailerrera?

Hasita daukaten kantu tailerraren jarraipena izango da. Mikel Markez ere han izan dela esan didate. Nire kasuan, 3 egun direnez, egun bakoitzean gauza ezberdinak landuko ditugu eta guztiek neuk egindako lanetan izango dute oinarria.

- Lehen egunean?

Aspalditik badut proiektu bat esku artean, eta gauzak bide onetik badoaz, udazken honetarako kalean izango da. Kepa Junkerarekin elkarlanean aterako dudako diskoa izango da. Leioako Kantika koruak ere parte hartu du.



Bertan, Bizkaiko hainbat dantza-doinuri (banangoa, binangoa...) Bizkaiko koplazaharren sortak egokitu dizkiet. Lehen aldia da, doinu horiek testuekin plazaratuko direna. Horiexek aztertu eta kantatuko ditugu.

- Bigarreanean?

Duela zenbait urte, Oskorrik Vizcayatik Bizkaiaera diskoa atera zuen, neuk proposaturiko plan batean: Bizkaiko bertso zaharren bilduma bat musikatu eta plazaratu. Bertan, gure inguruko herrietako gertaera asko agertzen dira: Zaldibartik Euzkadi egunkarira bidalitako Txakur famatua sorta, Eibarko Marikanokin Ameriketara, Durangoko Uribarriko lirio eder... Sorta bakoitzaren testuingurua azalduko dut, eta denon

arteana abestuko ditugu.

- Eta azken egunean?

Azken egunerako, neuk beste kantari batzuei egindako letrak izango dira oinarri. Kepa Junkera, Oskorri, Tapia eta Leturia, Imanol, Anje Duhalde, Mixel Ducau eta horien kantak abestuko ditugu, nire letrekin eginak izan direnak.

- Kanturako ohitura ez da garai batekoa.

Oraindik kostaldeko herri askotan kantatzeko ohitura haundia dago. Beste herri askotan, ekintza puntual gisa abesten da, baina galduz doa naturaltasunez, espontaneoki abesteko ohitura. Hala ere, kantuan egitea beti da ederra. Eta gainera, kanturako ohitura berreskuratzeko bidea ere horixe da.

- Kantu taileraz gain, zer-

tan zabilta murgilduta?

Idazten. 7 edo 8 liburukiz osatuko den ‘Joan ziren’ izeneko ziklo batean nago murgilduta. Lehen 2 aleak kalera tuak dira eta hirugarrena amaituta daukat. Neure bizitzako pasarteak eta bizipenak dira oinarri. Hirugarren eta laugarrean, 60-70 hamarkadako garaia izango da. Aurreko bietan, haurtzaro-gaztaroak izan dira. Hurrengoetan, kartzelaldia, itzulera, ea.

- Bertsoan ere bazabiltza...

Bertsoak idaztearena utzita daukat. Plazak egiten ditut, baina librean. Aldendu egin naiz pixka bat bertso mundutik. Nahita hartutako erabakia izan da. Baina libreko saioetan jarraitzen dut eta oso gustora gainera.

Asier Ibaibarriaga

Ardo banatzailea:

Riedel
Aygsvts
Clos Mogador
Yllera
Cantosán
Luis Cañas

Hugel&Fills
Anima Negra
Irache
Cillar de Silos
Vriego
Laurona

DISTRIBUCIONES ARRAL
TELEFONOA: 943 17 60 75

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

Argazki hau 1959ko apirilaren 24an aterata dago Trabaku beheko etxeurren. Onandiko Julia Zabalaren despedida. Bertan agertzen dira: Filipin Aranburu 'Osmalde', Anastasi Milikua 'Orrospengo', Juanita Ugarte 'Lapatza', Mari Carmen Gisasola 'Zelai', Pilar Lazpita 'Onandi', Valentina Gallastegi 'Trabakua', Evarista Gallastegi 'Onandi', Mari Conchi Arregi 'Zesteruanekue', Maria Gallastegi 'Goikoetxe', Maria Milikua 'Orrospengo', Tomasa Solozabal 'Iñusiña', Maria Urkidi 'Aizpe', Dolores Gallastegi 'Uxarte', Rosita Gorrotxategi 'Aizpe', Kontxita Sarasua 'Torre', Cecilia Biritxinaga 'Mallabiabarrena', Isabel Gallastegi 'Onandi', Maria Gorrotxategi 'Aizpe', Facunda Aranburu 'Osmalde', Martin Alberdi 'Markina', Jose fina Solozabal 'Iñusiña', Jose Luis Mugarza 'Trabakua', Jose Fina Agirregomezkorta 'Osmalde', Matilde Martinez 'Elgetzu', Jose Inazio Mugarza 'Ortuzar', Enrike Mugarza 'Trabakua', Begoña Mugarza 'Elgetzu', Jose Urkidi 'Abendibar', Marisol Aranzeta 'Bitoitia', Rufina Gorrotxategi 'Aizpe', Carmen Arregi 'Josepatxikinekue', Carmen Solozabal 'Atxitxe', Isabel Gorrotxategi 'Aizpe', Julia Zabala 'Onandi', Hilaria Zabala 'Onandi', Rosa Mari Arregi 'Galarra', Rosario Aranburu 'Osmalde', Alejandra Eguren 'Elorrio', Martina Mugarza 'Elgetzu', Nati Arregi 'Galarra', Mari Carmen Gandiaga 'Lapatza', Maria Angeles Arroitauregi 'Bolunbarri', Milagros Mugarza 'Elgetzu', eta Mari Tere Gerrikabeitia 'Iñusiña'.



1959
(MALLABIA)



(ERMUA)
1947

Margarita Aranburu 'Ostatukua' eta Juanita Solozabal 'Herrero' erosle eta Juli 'Querido' arrain-saltzaille. Eliz aurreko arkupe zaharretan daude erretratatuta, arraina metalezko ontzi batera botata erosten zen sasoian. Sasoi baten errekan harrapatutako arraina saltzen zen eta gero 'Txapero', furgone-ta txiki batekin, Ondarrutik ekartzen ekin zion.

Okerrak zuzentzen...

166. alea. Aurreko aleko Drogeteniturrin, Francisca Uribe agertzen zen eta guk, erratuta, Guridi abizena ipini genion.

"MENDIOLA"

Jatetxea

Erdikokale, 19
Tfno. (943) 17 22 43
ERMUA (Bizkaia)

EGUNEKO
MENUA
ETA KARTA
ERARA



optika

itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

SALEROSKETAK


· Prestaturiko furgoneta salgai: 2 ohe, sukaldea, hozkailua, berogailua, toldoa, dutxa, etab. Interesatuok deitu: 653745722.

ALOKAIRUAK

· Calpen apartamentua alokatzen da. Hondartza pareparean. Maiatza, ekaina edo uztaila. 943171107.




Apirilak 27
Zorionak Maite zure 5. urtebetzean Ainhoa, aita eta amaren partez.



Apirilak 15
Zorionak Aritz!! 4 urte bete dituzu!! Amona Carmen, aitona Julio eta 'tito' Oscarren partez!!



Apirilak 29
Zorionak Lourdes! Etxeko guztien partez!



Maiatzak 29
Zorionak Gaizka! 11 urte! Muxu pilo bat etxekoan partez!



Apirilak 27
Zorionak!! 10 urte bete dituzu, 'pieza'!! Olatz eta familiararen partez.



Apirilak 16
ZORIONAK JUNE ZURE 6. URTEBETETZEAN! FAMILIAKOEN PARTEZ.



Maiatzak 1
Zorionak Galder!! 10 urte! Etxekoan partez.



Apirilak 28
Zorionak Markel zure 2. urtebetetzean eta muxu handi bat Irati, Julene eta Ibairen partez!!



Maiatzak 7
Urte bete dator gure artera etorri ziñala, Mikele eta aldra itzela dakazu zorionak emoteko prest. Mosu, txipirrintxu.



Maiatzak 20
Zorionak Patrizia!! Ondo pasatu zure egunean, koadri-lakoan partez.



Maiatzak 15
Zorionak Gaizka!! 11 urte!! Etxeko guztien partez, muxu handi bat!!



Maiatzak 21
Zorionak Arantza!! Mikel, aita eta amaren partez. Muxu handi bat zure 6. urtebetetzean.



"Zorionak eta muxu handi bana Markos eta Mertxeri, Inesen partez"

drogeten@gmail.com
edo 943 17 93 50

Senén
www.joyeriasenen.com

MALLA
ileapaindegia
Probaleku 8, behea © 943 17 18 50



Merkataritza-gunerik handiena

Nagore Espilla

LANGILEA


Maiz entzun izan ditugu herrieta-ko eta auzoeta-ko merkatarik kexuka merkatal zentro erraldoiek hartutako garrantzia eta protagonismoagatik. Hala ere erosteko gunerik hedatuena Internet dugu. Aukera zabala da, ez du desplazamendurik eskatzen, eta ordutegi mugagabea du, Interneteko erakusle-ihoa urtean 365 egun 24 orduz bezeroen eskura dago. Hatz erakusleaz klik egin eta lur-mugak erraz gainditzen dira norberaren identitatea salbu eta anonimotasunean mantenduz.

Internet eskura izatea ez da nahikoa. Denbora asko behar da eta pazientziak dena ongi irakurri beharra. Gauzak merkeago erosteko okasio paregabea da, baina ordu asko igarotzen dira ordenagailu aurrean. Dendara nahiz agentziara joan, patrikatik dirua atera orduko produktua ukitu, usaindu eta momentuan nahi dena eskuratzeko erosotasuna gehi zerbitzua diruz ordaintzen da. Aukera anitza da eta norberak nahi duena aurkitzeko bideak asko izan daitezke. Ideiak argi izanez gero eroslea zuzen joaten da helmugara, guztiz argi izan ezean, edo ohiturarik ez badu holakotarako, hamaika alferrikako pausu emango ditu. Ezjakintasunaren zalan-tzak erasotzen du eta birtualtasunak ematen duen mesfidantzak kutsatzen du erositakoa etxean izan arte. Ordain-

ketak egiteko bide ezberdinak daude eta bakoitzak bere us-tez seguruena dena aukeratzten du: bankuko transferentziak, pay pal (txartelaren daturik eman gabe eta azkar, babestutako teknologia), etab. Negozio berriak sortzeko bidea izan daiteke. Herrian bere produktuak salgai jartzeko lokalaren alokairua ordaindu ezin duenak sarean du aukera. Atari digital bat sortu, edo salerosketarako gune birtualez baliatuz produktuak ezaguturazi ditzake.

Enpresa askok deskontuak eta sariak eskaintzen dizkie euren bezeroei internet bidezko erosketak burutzen baldin badizkie, horrela telefonozko edo zuzeneko salmentak murrizten baitira pertsonal gastuak gutxituz. Lanpostuak desagertzen dira? Zer eragin du horrek gure gizartean?

Argi izan ezean, alferrikako hamaika pausu emango ditu



IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen



TXINDURRI
TALDEA
Tokian tokiko



Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINNTZA BEREZIA
OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

Internet bidez, erosketarik egiten duzu? Zer erosten duzu?

Ez daukat sarean erosteko ohiturarik. Segurtasuna da kontuan hartzen dudana eta nahiago dut dendara joan produktua ikusi eta zuzenean bertan erostea.



Maite Muñoz. 35 años. Langilea

Inoiz erosi dut eBay-n deskatalogatutako DVD-ren bat. eBay subasta antzeko bat da, non jendeak pujatzen duen eta bestelako dendetan aurkitzen ez dituzun gauzak lor daitezke prezio onean.



Hugo Isidro. 20 urte. Ikaslea

Inoiz kontzerturen baterako sarreraren bat erosi dut, baina orokorrean erosketak txikiak egin ditut, etxeko erosketak eta bidaiak ez ditut inoiz sarean erosi. Begiratzeko ibili izan naiz, baina ez naiz asko fidatzen.



Giovanna Martin. 29 urte. Langilea

Bai, txanponen bildumak egiten ditut eta horiek erosten ditut Internet bidez, merkaturak zabalagoa delako eta konpetentzia handiagoa dagoenez, prezio merkeagoak lor daitezkeelako.



Jorge Gallego. 31 urte. Langilea

Erabiltzaile hasiberria naiz Interneten eta oraindik ez dut lar kontrolatzen. Begiratzeko ibiltzen naiz, baina orain arte ez dut ezer erosi sarean; baina horrek ez du esan nahi inoiz erosiko ez dudarik.



Soraya Becana. 41 urte. Langilea

Duela 6 hilabete jarri dugu Internet etxean eta momentuz ez dut ezer erosi sarean. Esaterako arropa erosteko, nahiago nuke aurretik ikusi eta zuzenean erostea. Ez nuke erosketak handi bat egingo..



Javi Urbieta. 41 urte. Langilea

Testua: Alazne Aiestaran

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebis-
tak, bideoak, musika,
aparatoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA



HORTZklinika
nerea iñiguez

San Ignazio, 4 ERMUA
943 03 05 12



ez zaitetz atzean gelditu, zatoz guregana!

Diputazio, 15 - behea

943 17 01 88

HAURRENTZAKO ZINEA

Hilak 3:
'El valiente Despereaux'.

Hilak 10:
'Pérez 2: gure sagutxo hori'.

Hilak 17:
'Space chimps: un aventura superespecial'.

Hilak 24:
'Misión en Mocland'.

Hilak 31:
'Superagente 86'.
17:00etan. Lobianon.

ZINE-KLUBA

Hilak 7:
'Joe Strummer: vida y muerte de un cantante'.

Hilak 14:
'Deja vu, CSNY'.

Hilak 21:
'Quadrophenia'.

Hilak 28:
'Whale Rider'.
21:30ean. Lobianon.

DANTZA

Hilak 30:
'Voces y esparto'.
18:00etan. Orbe Kardinalaren plazan.

ANTZERKIA

Hilak 17:
Bertso-antzerkia: Uxue Alberdi, Aitzol Barandiaran, Iraia Elias eta Nagore Exabe.
19:30ean. Orbe Kardinalaren plazan.

MUSIKA

Hilak 8:
Kalejira: Irulitxa txaranga. 19:00etan.

Hilak 23:
Vértigo Rock 17:00etatik. Orbe Kardinalaren plazan eta inguruan.

Hilak 30:
Ermuan Kantuan. 12:30ean. Orbe Kardinalaren plazatik.

HAURRENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 2:
Haurrentzako ipuin-kontaketa: Apika taldea.
17:30ean. Liburutegian.

Hilak 16:
Ikuskizuna: 'Ino, Ino, Ino... badator Bonbardino', Anne, Monna eta Kamarroaiaren eskutik.
18:00etan. Orbe Kardinalaren plaza.

ERAKUSKETAK

Hilaren 3ra arte:
Marrazkiak: Antonio J. Hernández.

Hilaren 4tik 17ra:
'Biblioteca en guerra'.

Hilaren 19tik 31ra:
Modelismoaren hondakinak.

Lanegunetan 18:00etatik 20:00etara. Asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Lobianon.

BESTELAKOAK

Hilaren 4tik 10era:
Galiziako letrei buruzko ihardunaldiak.

Hilaren 14tik 17ra:
Euskal Liburu ta diska azoka: hainbat ekitaldi.

Hilaren 25etik 31ra:
Gaztela-La Mantxako Kultur astea.

Patxi Lopez

VERTIGO ROCK '09

MAIATZAK 23 MAYO ERMUA (BIZKAIA)
Doan / Grats

Hamlet Censurados Damudot Eskarmiento
Plaza Cardenal Orbe 21:30h

Lord Witch No Konforme Vuelko
kalean 17:00h

EMPLEAK / OBRERAK:
MUSIKA ARGAZKIAK / FOTOGRAFIA MUSICAL GRAFFITIAK (12:00h)

LABORANTZAKOAK / OBRERAKOAK:
BARRIOAN 8 CERVEZAS / BEER STATION CERVEZAS / DAKOTA CAMP / BIER / TASTING / INBIEN / OTOMBU / LURPE / LONDON / DO MOUTH / GIBERIKO / TITANIC / TORRENTA / GORRIKALE / ALABAMA / GRIKON / TALAPARTA ZARAI / YOMI PEH / NORRIA / ERIZ / KALOTS / SERRINO

Harategia

M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

OPTICA
J. CASADO

Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL
Harategia

TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería
TITANIK

Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

Hau bai
beherapena!

lehen 30 urtera
orain

50 era

50 urterako hipoteka.
%100eraino, eta abalik gabe.
5 urte bitarteko ezaldia 6.000 euro,
17,50 eurotik hasita hilean.
UTB: %3,46

zeure erara

bbk
hipotekak

Eusko Jaurlaritzak baimendutako publizitatea 05/03/28 espediente-zenbakiarekin.

50 urterako 6.000 euroko mailegu baterako kalkulaturako kuota lehen urtean, amortizazioaren lehen 5 urteko ezaldia barne. Lehen urteko interes-tasa: %3,5. Gainerako epea: Euribor (BOE) + %0,70, urtero berrikusgarria. Irekitze-komisioa: %0,25. Amortizatze-komisioa eta kitapen aurreratuen komisioa: %1,00. UTB: %3,46, 2005eko azaroko Euriborra (%2,684) kontuan hartuz kalkulaturako UTBa.

PREST
m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

UNIBERTSITATEA
BIZITZEKO
PREST!



ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

MAIATZAK 7 - 17:30 osteguna AULA MAGNA

MAIATZAK 21 - 17:30 osteguna AULA MAGNA 2. zikloa

ARRASATE-MONDRAGÓN Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MAIATZAK 14 - 18:00 osteguna AULA MAGNA

OÑATI Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

MAIATZAK 7 - 18:00 osteguna AULA MAGNA

MAIATZAK 21 - 18:00 osteguna AULA MAGNA 2. zikloa

IRUN Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MAIATZAK 9 - 11:00 larunbata AULA MAGNA

ESKORIAS Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

www.mondragon.edu/prest

